


# Aretxagazeta

Plastikozko panpinak,  
**panpina dotore**  
bihurtzen ikasi



ETA GAINERA...

**Ze barri?**

ASTEKO GAIA  
**Datozen**  
hilabeteetako lanak /8

HURRETIK  
**Marilyn Arando,**  
Amuskako lehendakaria /9

LEINTZ GATZAGA  
**Landa Garapenerako**  
programa /10



**GUARDIAKOFARMAZIA**

**ZAPATUA, 9**  
ITURRALDE. Mitarte 18... 943 79 27 22  
**DOMEKA, 10**  
ITURRALDE. Mitarte 18... 943 79 27 22

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**OROKORRAK**

Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarteak	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxiko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 79 74 58
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausokai Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Saretxo	943 71 26 56
Taxi geltokia	943 79 22 33
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

**UDALTAINGOAK**

**LARRIALDIK**

SOS Deiak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 79 71 99
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

**MEZAK**

**ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA**  
Domekak: 11:00, 12:00  
Zapatuak: 19:30  
Lanegunak: 19:00

**SANTA RITA**  
Domekak: 09:00  
Zapatuak: 18:30  
Lanegunak: 08:00

**BASERRI AUZOETAN: ARIENTZAN**  
Domekak: 11:30  
**MENDIOLA**  
Domekak: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)  
**ARKARAZO**  
Domekak: 12:30

**OHARRAK**

**MENDIRA ETA SAGARDOTEGIRA AUTOBUS IRTEERA**  
Murruxiko mendi elkarteak antolatuta, domekan, mendira eta sagardotegira irteera egingo da. Autobusa Azbeko geltokitik irtengo da, goizeko zortzi eta erdietan.

**DEGABEL-EK BATZAR OROKORRA**  
Degabelek, Deba Garaiko Abelazle elkarteak ohiko batzar orokorra egingo du domekan Elgetako udal-etxean. Lehenengo deialdia 11:30ean egingo da eta bigarrena 12:00etan.

**PATINAJE IKASTAROA**  
Martxoaren 23an, patinaje ikastaroa hasiko da. Zapaturu izango da, kirol etxean. Izena emateko azken eguna martxoaren 20a da. Animatuz gero, deitu kirol etxera, 943 71 26 28 telefonora.

**GORPUTZAREN ETA ADIMENAREN INTEGRAZIORAKO TAILERRA**  
Sadhana yoga eta psikoterapia zentroak gorputzaren eta adimenaren integratzerako tailerra antolatu du martxoaren 23an. Tailerra Maribel Gómez psikologo eta psikoterapeuta donostiarrak zuzenduko du. Interesatuok eman izena martxoaren 15a baino lehenago 616 96 57 95 telefonon.

**LORAMENDIREN AGENDA**

**ARGAZKI ZAHAR BILA**  
Loramendiren laguntzarekin 2003. urteko Debaguneko egutegia kaleratu gura da. Horretarako, elkarteak argazki zaharrak eskuratu gura ditu. Beraz, daukanak eraman ditzala elkartera

**ALICIA STÜRTZAREN LIBURUA**  
Martxoaren 14an, Alicia Stürtzek *Emakumeak Euskal Herrian* liburua aurkeztuko du udaletxe zaharrean, 19:00etan.

**ORAINDELA 10 URTE ARETXABALETAN**

**Aretxagazeta aldizkariko lehenengo alea kalean**

Martxoaren 12an kaleratu zen ARETXAGAZETAko lehenengo zenbakia. Orduko ARETXAGAZETA tamaina txikikoa zen eta mantxeta izan ezik, gainerako guztia zuri-beltzean argitaratzen zen. Lehenengo aleko protagonistak Iñurrategi anaiak eta Joxerra Zubizarreta izan ziren.



**BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

**“Mendibizkarra”**

Gailurreria, gailurrak.



**ZORIONAGURRAK**




ARETXABALETAKO **Eneko L. de Armentia**  
Sean, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETAKO **Jenni Davila**  
9an, 15 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZAKO **Melissa Ferreira**  
10ean, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETAKO **Alberto Zillaurren**  
11n. Zorionak eta urte askotarako, kafeko lagun taldearen partetik.



ARETXABALETAKO **Ander Navarro**  
12an, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat, anaien eta gurasoen partetik.



ARETXABALETAKO **Julen eta Andere**  
Berandu bada ere, zorionak eta muxu bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETAKO **Saioa Karretero**  
12an, 25 urte. Zorionak eta urte askotarako, etxeko guztien partetik.

BABESLEA

**Zorionak denoi !!**

Foto

**Urkiola**

Argazkidenda

HERRIKO PLAZA 5  
20550 ARETXABALETAKO  
TELEF 943 79 39 20

- \* ESTUDIOIAK
- \* EZKONTZAK
- \* JAUNARTZEAK
- \* ENMARKAZIOAK
- \* DIGITAL LANAK
- \* KAMARAK ....

Beti karretea edo albuma dohanik !!

**LIBURUTEGIKOTXOKOA**

**‘Elefante txori-bihotza’**

Animalien maistra batek egunkarian irakurri du Afrikako elefanteek maiz behar dutela, eta hara doa haiei erakustera. Hantxe konturatuko da elefante guztiak ez direla berdinak, batzuek tigre bihotza dute, beste batzuek tximinoena eta baten batek txori-bihotza ere. Azken horrek txori-rikien egiten du berba, eta horren esker lortuko du beste guztiak uholtetik libratzea mendira igaraz. Ipuinak gutun forma du eta umorea da ezaugarri nagusia.


Ipuin xamurra osatu du orain goan Mariasun Landak, Urte ruagaren kolorezko marrazkarekin ederrekin lagunduta. Sei urtetan aurrera irakurtzeko modukoa.

**ELFANTE TXORI-BIHOTZA**  
Mariasun Landak  
Anaya-Haritzea  
70 orrialde  
2001

JOSEBA LÓPEZ DE ARMENTIA

**Kalitate goreneko estalketa elektrolitikoak**

MIRVAT. Elkarte kooperatibo mugatua  
Aingeru ibiltokia 41  
ESKORIATZA  
943 71 45 06 Faxa: 943 71 50 05






## ATREBENTZIAEZPADA/ Emakumien Egune letxe, 'Gizonen Egune' be egon biherko litzake?



**IÑAKI AZKUNAGA**  
Langillie




**FRANCISCA ALZOLA**  
Jubilaue




**CARLOS BEREZIBAR**  
Langillie



**MARIAN MAQUEDA**  
Langillie



**LUIS BENGOA**  
Jubilaue



**ANDREA JIMÉNEZ**  
Langillie

Ez dot uste. Gizonok nahi-ko siñistute daukogu gure eskubidiek. Emakumiena zelebretari zentzu haundixague topetan dutzet. Ahal dan neurrixen lagun-  
du egin biher jakue.

Bai, zergaittik ez ba? Pakie egon daixen bixena zeleb-  
brau biherko litzake. Hala eta be, gizonak ondiokan oso atzetik dabitx etxeko lanetan. Nik neuk kafie har-  
tzen dot lagunekin.

Bai. Bardinttasune ez da ba eskaketan? Egun bat zelebretie bestie be zelebretie dakarrela uste dot. *Gizonen Egunien*, gaiñera, ez neuke ezertxo be egingo, ez fregaurik, ez plantxarrik.

Ez. Emakumiok geure egoe-rie aldarrikatzeko zelebretan dogu, eta gizonak ez daukie zertan zelebretan. Nik konbentzidute zelebretan dot, emakumion lan egoe-rie oso eskasa dalako.

Bai, zergaittik ez ba? Gaur-ko mutil gaztie, gaiñera, diferentiek die etxeko lanak egitteko orduen. Hala eta be, andriek eta bixok gura-  
go dogu San Balentin Egu-  
ne zelebretie.

Bai. Gizonak be eskubidie daukie. Gu ez gara euren moduko matxistak izengo. Emakumien Egune errei-  
bindikaziño egune izen biherko litzake, baiñe ezer lortzen da?

## TXALOAKETATXISTUAK



**TXISTUAK ARGI GUTXI GAUEAN** Orokorrean herria erdi ilunpe-  
an egoten da gauetan. Durana kalean bertan dauden farolek ez dute  
argi askorik ematen. Hala ere, zonalde batzuk guztiz ilunpean dau-  
de. Kurtzebarri Eskolaren inguruan dauden farolak apurtuta dau-  
de eta bertan automobila aparkatuz gero, benetan gaitza da giltza  
bere lekuan sartzen asmatzea. /MIRARI ALTUBE

## ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN / 4

### Panpina ikastaroa

Udaleko Kultura Sailak panpina ikastaroa antolatu du udaberrirako. Izena emateko epea zabalik dago.

ASTEAN BEHIN / 5

### Zuhaitzen eraztunak

Errekabarren kalean dauden hiru zuhaitzi burdinazko eraztunak aldatu dizkiete.

KIROLAK / 6

### Patinaje ikastaroa

Udaleko Kirol Zerbitzuek patinaje ikastaroa antolatu dute. Martxoaren 23an hasiko da.

## ASTEKODATUA

# 10

### BAT KEXA JASO DIRA EDUKIONTZIAK DIRELA-ETA

Zabor edukiontzia direla-eta udaletxean jasotako kexa guz-  
tiak ahoz eman dira, hamar bat. Kexa arrazoizkoa dela ikusi dene-  
an, trafiko seinalea oztopatzen du-  
ela, lekuz aldatu da edukiontzia.

## BESTE EKESANA

**“** Agerkundeen gai honen inguruan nik esango nuke kristau fededun izateko ez dela beharrezko baldintza Amabirjinaren agerkun-  
deetan sinistea.

Alderdi horretatik elizak ez du inoiz agertu den edo ez den esaten, baina era berean ez dauka eragoz-  
penik leku horretan nahi duenak Amabirjina gurtu dezan.

Baina agertu den edo ez den ez du elizak erabakitzen, azken finean horrelako agerkundeak pertsonalak edo pribatuak dira, pertsona batek edo bik esan ohi du Amabirjina ikusi duela, baina gainontzekoek ez dute ikusi.

Agerkunde hauen aurrean, zer esan dezake elizak bi pertsonak ikusi dutenari buruz? ezer gutxi esan dezake.

ANTONIO ASTIGARRAGA  
Goitb/02-03-01

## HERRITARREN BERBAK/ Edorta Mendieta



*Nahi dutena ala behar duguna?*

**K**uartela gora eta kuartela behera, bada aste batzuk bertan egin behar omen den erai-  
kuntza berriaren inguruko kontuak besterik entzuten ez direla: modu honetan edo bestean botako dutela gaurko eraikuntza; ez dakit noizko martxan izango dela; zinema eta beste ez dakit zenbat gauza izango ditugula bertan...

Ei, ei, ei... ez da biltza agudo samar?

Galdetu ote dio inork bere buruari planteatzen den mo-  
duko azpiegiturarik behar ote dugun Aretxabaletan? Hobe esan, pentsatu ote du inork zein den Aretxabaletako beharrei aurre egiteko modurik egokiena?

Beharrak ugariak dira gure herrian, jakina. Ugariak eta identifikatuak, gainera. Batez ere kultura eta kirolaren inguruan. Beste arlo batzuetan ere bada zereginik, nola ez, baina aipatutako biak dira, batez ere, egiteko gehien dutenak. Horrela utzi zuen agerian duela ez asko egin zen

plan estrategikoak.

Plan hura Aretxabaletako egoeraren diagnostikoa da. Ahuleziak identifikatu eta aha-  
leginak (eta dirua) norantz bi-  
deratu esaten duena. Baina be-  
har ugari eta diru eskasa dau-  
kagunez, hausnarketa sakon eta zabala behar da arazoei

bidezko erantzuna eman aurretik. Proiektu enble-  
matiko eta partzial baten ordez, kon-  
promisozko irten-  
bidea behar da; aha-  
lik eta behar gehien asetzen dituen proiektu globala, ale-  
gia, inbertsioa errentagarri izan

dadin. Eta aukeratutako proiektua oso motz gelditzen da herriaren beharrentzako.

Azpiegitura enblematikoak egitea gauza polita ei da. Izuga-  
rri ondo sentitzen omen da gi-  
zakia horrelako eraikinak egin eta gero. Egia esan herria asko janzten dute... Baina hiru milioi eta erdi eurotik gorako adornua garesti samarra iru-  
ditzen zait, baldin eta Aretxaba-  
letak dauzkan ahuleziei erantzuten ez badie.

**“Pentsatu ote du inork zein den Aretxabaletako beharrei aurre egiteko modurik egokiena?”**

# Aretxagazeta

Durana 11  
20550 ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 86 21  
Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA  
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA  
Mirari Altube  
Amagola Lasagabaster

MAKETAZIOA  
Goio Arana

PUBLIZITATEA  
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA  
SS-378-94

ISSN  
1134-2609

TIRADA  
4.100 ale

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak



Eusko Jauriritzako  
Kultura Saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Aretxabaletako  
Udala



Eskoriatzako  
Udala



Leintz Gatzagako  
Udala

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:





BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

## Gazte okupak

Gazte okupak izan ditugu herrian. Txoritxo batek kontatu didanez, bolatoki ondoan okupatu zuten udalaren lokal bat. Antza denez, zulo txiki bat zegoen lokalaren atze aldean eta handik sartzen ziren. Txoko polita eginda zuten bertan, sofa eta guzti. Udalak aurreko batean atera zituen hango traste guztiak kanpora, eta hormako zuloa ere itxi zuen. Pena izango dute gazteek, neguko egunak ederto pasako zituzten han eta.

Beste batzuek kanpoko giroa gurago izaten dute, mendiko giro ederra hain zuzen ere. Hori kontuan hartuta, datoren aste bukaerarako bi mendi irteera antolatuta dira. Batetik, Zariaia mendi taldeak Malkorrara egingo du ibilaldia. Murruxok, bestetik, Aralarra mendi irteera egingo du. Baina ez da horrekin eguna, izan ere, gero sagardotegian bazkalduko dute. Mendi botatako izerdiak erreku-peratzeko modu aproposa. Gustura joango nintzateke ni neu ere, baina beste plan bat daukat.

Euskara elkartera salto egingo dut. Loramendi elkarteak langile berria du merkataritza alorra eramateko. Larraitz Arandok dendariekin lan egingo du, merkataritzan euskararen presentzia handiagoa izan dadin. Ez du erronka makala. Zorte on lan berrian.

KULTURA / Apiriletik ekainera bitartean, panpina dotoreak egiteko aukera egongo da Rosa del Aguilaren laguntzarekin

# Panpina ikastaroak eskulan dotoreak giro onean egiteko aukera emango du

MIRARI ALTUBE

Udaleko Kultura Sailak panpina ikastaroa jarri gura du abian udaberrian. Hirugarren aldia da panpinekin ikastaroa egiten dela, eta oraingoan ere arrakasta izango duelakoan daude. Ekainera bitartean, panpina dotoreak egingo ditu batek baino gehiagok.

Parte hartzaileek inork gura ez dituen plastikozko panpinak panpina dotore eta ikusgarri bihurtuko dituzte, Rosa del Aguila irakaslearen laguntzarekin. Ordu askoko lana da, pazientzia eta abilezia apur bat eskatzen du, baina edozeinek egin dezake.

### ORDU ASKOKO LANA

Apiril inguruan jarriko du abian panpina ikastaroa Udaleko Kultura Sailak. Horretarako, hamar bat laguneko talde bi osatu gura ditu, bata goizez eta bestea arratsalde aritzeko. Eguaztenetan izango dira ikastaroak -hiru bat ordu eguazteneko- eta Rosa del Aguila ibiliko da irakasle lanetan.

Plastikozko panpina harrizko itxura duen panpina bihurtzeko lan handia dauka. Paperezko pastarekin itxura berria eman behar zaio margotu aurretik, aurpegi berria egin, soinekoa edo frakak irudikatu, eta abar. Eta abileziak gainera, pazientzia ere eskatzen du lan horrek. Hori dela eta, panpina bakarrik egiteko hogeita hamar bat ordu beharko dituzte.



UDALEKO KULTURA SAIA

Sinestezina da plastikozko panpinak zelan bihurtzeko, pazientzia apur batekin, hain panpina dotore.

bai ikasleek bai eta Rosa del Aguilak irakasleak berak ere.

### GIRO ONA NAGUSI TALDEAN

Azken urteotan, eskulan ikastaroek izugarriko arrakasta izan dute, batez ere emakumeengan.

Rosa del Aguila irakaslearen esanetan, "ikastaroetara etortzen direnek ez dituzte eskulanak bakarrik egiten; taldean izugarriko giroa sortzen da eta horrek eguneroko buruhausteetatik ateratzeko aukera ematen die". Esku-

lan erakusketak ikusi ostean ikastaroetan parte hartzea animatu denik ere badago, agian norbera hain artelan politak egiteko gai den frogatu guran. Beraz, ez dago aitzakiarik: eskulan dotoreak giro onean eta edonoren eskura.

## LABUR

### Iturri gorri frontoi osteko Udaleko biltokian egonlekua zuten herriko hainbat gaztek

Hamabost eta hamazortzi urte bitarteko hainbat gaztek egonleku bikaina zeukaten bolatokiaren alboan dagoen biltokian. Musika-tresnak eta sofa bat zeukaten, eta argiaren kutxatik argindarra hartzen zuten.

Dirudienez, Aratuste ingu-

ruan sartu ziren gazte horiek, horman zegoen zuloa aprobeztatuta. Joan den astean, bestalde, udaltzainek kanporatu egin zituzten Udalaren erabakiz, eta berriro sartu ez daitezten, horma berria egin diote, baita atari sarraila aldatu ere.


### Larraitz Arando, Loramendi EEn

Loramendi Euskara Elkarteak langile berria dauka: Larraitz Arando aretxabaletarra. Hala, iaz Olatz Olasto bergararrak utzitako hutsunea beteko du. Larraitz Merkataritza Sailaz arduratuko da, herriko merkataria euskalduntzeaz, hain zuzen.

### Jende gutxi Aberri Eguna antolatzeke


Aurten, azken bi urteotan legez, Aberri Egun bateratua egin gura dute herrian. Egun hori antolatzeke aspaldi hasi zituzten batzarrak, baina oso jende gutxi joan da batzarretara. Bateratua izateak denon parte hartzea eskatzen du. Ea horrela den.

## BERALAN KRISTALDEGIA



- Ispilu bizelatua
- Ateentzako beirateak
- Beirate grabatuak eta landuak
- Bainugelako altzari eta manparak
- Neurri zehatzetarako armairuak
- Enmarkazioak
- Lantegietako mantenimentua
- Beiran naiz metakrilatoan neurria eginiko edozelango lanak

Herriko plaza, 8 behe • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274



Hirusta  
Jateetxea

Ilargi plaza 4  
943 79 06 57  
ARETXABALETA

Mobiliario  
ARENZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA



Miren & Zuriñe

Bitxitegia • Erlojudenda  
Bitxien diseinua  
Bitxien konponketa

Otalora, 4 (eliza aurrekaldean)  
Tel.: 943 77 13 57  
ARETXABALETA



**NATURA/** Hogeit bat urte izango dira eraztunak jarri zizkietela zuhaitzei euskarri gisa

# Errekabarreneko zuhaitzei eraztunak aldatu dizkiete

MIRARI ALTUBE

Astelehenean bertan ibili ziren galdaragintza bateko langileak Errekabarren kalean dauden hiru zuhaitzi burdinazko eraztunak aldatzen. Izan ere, eraztunek zuhaitzen enborrak erabat estututa zituzten, eta eraztunok aldatzeko garaia zela adierazten zuen horrek.

Errekabarren kalean, Osasun Etxearen parean, ehunka urte dituzten hiru zuhaitz daude: magnolia bat eta izei bi. Garai baten hantxe egon zen mojen komentuan zeuden zuhaitzak dira.

## ZUHAITZAK, ELKARRI LOTUTA

Zuhaitzak lorategi txiki batzuen barruan daude: batean bi izeiak eta bestean magnolia. Lorategiok, ordea, ez daukate lur askorik, eta zuztarrek ezin diote behar den bezala heldu lurrari zuhaitzei eusteko. Horregatik -eta zuhaitzek geroago eta garaiera handiagoa zutela ikusita-, zuhaitzak burdinazko eraztunen bidez elkarririk lotuta eustea pentsatu zuten orain dela urte batzuk.

Baina hogeit bat urtean zuhaitzak hazi egin dira, eta burdinazko eraztunak, ez. Orain dela urtebete inguru, Udaleko Hirigintza teknikari Jose Mari Segovia konturatu zen eraztunak zuhaitzak itozten ari zirela. Horrela, eraztunok aldatzeko ordua iritsi dela erabaki eta astelehenean, galdaragintza bateko langileak horretantxe ibi-



AMAGCÍA LASAGABASTER

Galdaragintza bateko langileak aldatu zizkieten eraztunak hiru zuhaitzei.

li ziren Errekabarrenen.

Haize zakarra izaten denean, lotuta egoteak segurtasun handiagoa ematen du, batez ere oso zuhaitz garaiak direlako. Esaterako, orain dela gutxi -urte hasie-

ran, hain zuzen-, udaletxeko lorategiko ezki eder bat haizeak bota zuen. Hala ere, zuhaitz guztiak ezin dira lotu, elkarririk lotzeko hiru behar baitira, hirurek era berean egin dezaten indarra.

## TXUTXUMUTXUA



### Aingeru Guarda, erretiratuen zaindaria

Hilaren leian, Aingeru Guarda Eguna izan zen, eta Basotxo elkarteko erretiratuek euren zaindaria eskatzen duen moduan ospatu zuten eguna. Lehenengo, meza izan zuten eta ostean, Taberna-Berri jatetxean bazkaria; ez nolana hikoia, gainera: entsalada, legatza... eta bukatzeko, kopatxoa eta purua. Musika ere jarri zieten dantzan egin gura zutenendako, eta makinatxo bat animatu zen. Zaindaria eguna aitzakia hartuta ederto pasatu zuten eguna gure herriko erretiratuek. /M.A.

**Maritxu**  
**drogeria**  
**mertzeria**

Araba Ibilbidea, 24  
Tel.: 943 79 23 53  
ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

**Garbiketa**  
**orokorrak**

Errekabarren 3- Behea  
ARETXABALETA  
Tel: 943 79 01 28



**MEMESA**

**Industri hornidurak**

Tel.: 943 71 24 11 / Fax: 943 71 21 19  
ARETXABALETA

**Dorleta**  
**taberna**

*Bezeroen zerbitzura*

Loramendi, 8  
Aretxabaleta  
Tel.943 79 94 15

**Lezama**  
**BIDEO KLUBA**

Zure gustoko zinema!

Santa Kurtz 24  
ARETXABALETA  
943 79 33 95

**Martín**  
**RESTORANTE**

*Bere bezeroen*  
*zerbitzura*

Mitarte, 16  
Tel.: 943 79 01 72  
ARETXABALETA

**OSKAR**  
**GARAJEA**

Tel.: 943 79 98 74  
Fax: 943 71 24 59  
Basabe Poligonoa, A-2-4  
ARETXABALETA

**Angelines**  
**AUTOZERBITZUA**


*Frutan eta*  
*txarkuterian*  
*espezialitatea*

Mitarte, 16 • 943 79 61 42  
ARETXABALETA

**Aretz**

**taberna**

Markole, 5  
Tel.: 943 79 14 67  
ARETXABALETA



**MAPFRE**  
**Aseguroak**

Errekabarren, 3  
Aretxabaleta  
Tel.: 943 77 11 76



PATINAJEA

## Patinaje ikastaroa 23an hasiko da eta zapaturo izango da, kirol etxean

Hasiberriak hastapen mailan ibiliko dira, eta zerbait dakitenek hobetu ahal izango dute

MIRARI ALTUBE

Iaz antolatu zuten lehenengo aldiz patinaje ikastaroa Udaleko Kirol Zerbitzuek. Bi jardunaldi egin behar izan ziren, gainera, egun bakarrerako jende askok eman zuten-eta izena. Arrakasta horren aurrean, udaberriaren beste ikastaro bat egitea erabaki dute.

Ez da samurra arrakasta izango duen ikastaro bat antolatzea. Sarritan taldea osatzeko ere larri ibili izan dira kirol etxean, baina patinajeari dagokionez ez da inolako arazorik egon. Iaz, bi txanda egin behar izan ziren izena eman zuten guztiek parte harrezaten. Aurten, ikusi egin behar.

### MAILA BI: HASTAPENA ETA HOBEKUNTZA

Martxoaren 23an hasiko da Udaleko Kirol Zerbitzuek antolatutako ikastaroa. Iaz bezala, Mikel Morras izango da irakaslea, eta aurten bi maila izango dira: batek, inoiz patinatu ez dutenendako ikastaroa egongo da, hastapen ikastaroa; eta, bestetik, iaz ikastaroan parte hartu zutenek edo bere kasa ikasi dutenek teknika



UDALEKO KIROL ZERBITZUAK

Iaz ikastaroak izan zuten arrakasta ikusita, aurten ere egitea erabaki dute.

hobetzeko aukera izango dute.

*On line* deritzen patinak erabiliko dituzte ikastaroan. Era berean, izotzean ibiltzeko edo eskiatzeko ere oso erabilgarriak izango ei dira ikastaroan ikasitakoak. Hala, kirol etxeko kantxa

patinajeko pista bihurtuko da datorren martxoaren 23tik aurrera, zapatu eguerdian. Zazpi saiko ikastaroa izango da, eta parte hartu gura dutenek martxoaren 20a baino lehen eman beharko dute izena kirol etxean.

PILOTA

## Gomazko palaz jokatzeko antolatu den pala txapelketan sei bikote ari dira norgehiagokan

Kirol etxeak gomazko paletaz jokatzeko antolatu duen pala txapelketan, sei bikotek besterik ez du eman izena. Aretxabaletako bikote bakarra agertu da, gainera, Gorka Madinabeitiak eta Edo- ta Antxiak osatutakoa. Lehenengo aldiko bi jardunaldi jokatu dituzte dagoeneko. Guztiek elkarren aurka jokatu ostean, emaitza onak lortzen dituzten bikoteek finalerdia eta finala jokatuko dute.

PIRAGUISMOA

## Sella errekarara piragua irteera antolatu du Murruxok, hurrengo aste bukaerarako

Udaberria hurreratzen ari dela eta Murruxokoko piraguismo saillekoak ere animatu egin dira piragua irteera antolatzea. Sella errekarara egingo da eta aste bukaera osoa, martxoaren 15etik 17ra, pasatuko da bertan. Izena emateko martitzenean 19:00etatik 20:00etara bitartean Murruxokoko lokaletik pasatu edo Azkena tabernara joan. 20 euroko fidantza utzi behar da izena ematean.

### JOKATZEKOAK

#### FUTBOLA

UDA-Hernani  
Preferentea.  
Zapatua. Hernani.  
UDA-Oiartzun  
Bigarren mailako erregionala.  
Domeka. 16:00. Ibarra.

#### PILOTA

Aretxab.(1)-Aretxab. (2)  
Lehenengo mailako gazteak.  
Aretxab.(2)-Zazpitarri  
Aretxab.(1)-San Esteban  
Seniorrak.  
Egubakoitza. 19:00. Iturrigorri.

### EMAITZAK

#### FUTBOLA

UDA 2 Ordizia 0  
Preferentea.  
Denok bat 5 UDA 1  
Gazteen Euskal Liga.  
UDA 2 Sanpredotarra 4  
Bigarren mailako erregionala.  
Elgoibar 2 UDA 3  
Lehenengo mailako kadeteak.  
UDA 1 Lasartearra 3  
Zestoa 1 UDA 2  
Bigarren mailako kadeteak.  
A. Ondarroa 1 UDA 3  
Infantilak.

#### PILOTA

Udaberri Torneoa  
Andazpe 22 Aretxab. (1) 12  
Murumendi 22 Aretxab. (2) 10  
Gazteak.  
Aretxab. (1) 22 Aretxab. (2) 4  
Seniorrak.  
Debarroko Txapelketa  
Bergara 22 Aretxabaleta 6  
Kadeteak.  
Bergara 6 Aretxabaleta 22  
Gazteak.  
Bergara 14 Aretxabaleta 22  
Seniorrak.

# Gemes

Durana 40 ARETXABALETA Tel.: 943 79 99 18

## edertze aretoa

### TERMOESTIMULAZIOA teknika berria



Gorputzeko  
tratamendua:

- zelulitisaren aurkakoa
- loditasuna
- zirkulazio arazoak
- lasaigarria
- drenajea
- reafirmatzailea
- erditze ondokoa

### Udaberrira begira zainketak

- ✓ Depilazio elektrikoa: patilak, bigotea, okotza
- ✓ Depilazioa argizari beroz eta hotzaz.
- ✓ Dekolorazioa
- ✓ Behin betirako makilajea bekain eta espainetan
- ✓ Eguneko makilajea: ezkontzak, ezkongaiak...
- ✓ Azalaren garbiketa: adinaren eta zimurren aurkakoa, hidratazioa, aknea, shock (lifting-a)
- ✓ Ordezko azazkalak, natural-naturalak manikura eta aplikazioa
- ✓ Pedikura
- ✓ Dieta pertsonalizatuak
- ✓ Betileen tindaketa
- ✓ Solarium-a



ERRETRATUZAHARRA

# Aitzorrotz Egunean, denok mendira



**A**lboko erretratu zaharra Aitzorrotz mendian aterata dago, Santikurtz Eguneko ospakizunetan. Gaur egun bezala, lehenago ere Santikurtz Eguna maiatzaren hiruan izaten zen, baina festa hilabete horretako lehenengo domekan egiten zen.

Neska eta mutil, koadrila berean, goizean goiz joaten ziren Aitzorrotzera. Ogitartekoa eta ardoz beteriko zahatoa aldean zutela egiten zuten mendian gorako ibilaldia. Gero, behin Aitzorrotz puntara heldutakoan, ermita inguruan elkartzen ziren guztiak. Gehienbat, eskoriatzarrak joaten ziren, Bolibarkoak eta inguruko auzoetakoak. Baina aretxabaletarrak ere animatzen ziren. Azken baten, denek elkarrekin ospatzen zuten eguna, erromerian dantza eginez.

Erretratuan azaltzen diren koadrila-lagunek 20-21 urte zituzten orduan. Gutxi gorabehera, 60ko hamarkadakoa da erretratua. Garai hartan, oraindik ez zegoen emakumezkoendako frakarik, eta gonarekin joan beharra izaten

zuten mendira ere. Gainera, bidean larrialdi galantak pasatzen zituzten neska horiek. Izan ere, Aitzorrotzeko haitzak igotzerakoan beti izaten zen "espabilauren bat" behetik begiratu zuten neskei kulerok ikusteko gertu zegoena. Hala ere, neska eta mutil, ondo baino hobeto konpontzen ziren

eta horren adierazgarri dugu erretratu zahar hau.

Beheko ilaran: Lete auzoko Emilio, Mendiolako Peñakuloko Martina, Arientzako Ardantzako Felisa, Handiko Asuncion, Ardantzako Pilar, Bolibarko auzokide bat eta, azkenik, Handiko Felisa. Atzealdeko ilaran argaz-

kiaren jabea azaltzen da, Felix Madinabeitia, *Katxo*, ardo zahatoa eskuan duela. Felixek ez du bere atzealdeko inor ezagutu. Lehenengoa Garaiko Meterio izan daitekeela uste du.


Argazkia: Felix Madinabeitia

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

## Industrialde berria Araba ibilbidean

**H**ainbat industriagune daude herrian. Araba ibilbidekoa orain dela hamar urte egin zuten, eta alboko argazkia dugu horren erakusle. Lantoki handi bi egin zituzten zonalde horretan.

Industrialdea herri erdialdetik gertu egiteak polemika bizia eragin zuen. Hala ere, eraikitako bi lantokiak itxura garbikoak izan ziren, eta hortxe amaitu zen eztabaida.



≈ 1992

Orain dela hamar urte ekin ziren Araba ibilbideko industrialdea egiten. Atzeko aldean aurretik egindako industrialdea dago.



2002

Itxura berritzailearekin egin zituzten Araba ibilbideko lantokiak. Aurrealde eta inguruak berdegunez estalirik dituzte.

**BASABE**

jatetxea

Basabe bidea z/g  
Tel: 943 79 91 84  
Aretxabaleta



**LURRINGEGIA  
OPARI-DENDA**

Mitarte, 18 • 943 79 38 59  
ARETXABALETA

**IZOTZ  
Taberna**

Mitarte, 16  
Tel.: 79 73 65  
ARETXABALETA

**Iber**

★ Loteria ★  
✿ Paperdenda ✿  
✱ Liburuak ✱

Otalora 2.  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 04 39

*Mitartegarakai*  
baserri turismoa



Arientza auzoa  
Aretxabaleta  
Tfnoa: 943 79 17 51



# Ze barri?

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2002ko martxoaren 8a / 71. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com

## Herrian egiten ari diren lanen eraginez aldaketa asko jasaten ari dira herritarrak

AINTZANE GARDOKI

Aspaldian esaten ari gara ibarreko beste leku batzuetan bezala Eskoriatzan ere lan ugari egiten ari direla. Lan batzuk udalaren esku dauden bitartean, beste batzuk ekimen pribatuko obrak dira. Udaleko aparejadore Natalia Ruarengana jo dugu argibide eske.

Udaletxea eta Museo Eskola kokatuko den Ibarraundi baserria zaharberritzea, liburutegi berria, urbanizazio lanak, etxebizitzak han eta hemen... Askok dira datozen hilabeteetarako egiteko dauden lanak. "Udaletxea eta liburutegia berritzea Udalak bere gain dituen lanak dira, baina erdialdean egingo diren etxebizitzak, adibidez, ez daukate zerikusirik Udalarekin", argitu digu Natalia Rua aparejadoreak.



AINTZANE GARDOKI

Arana Kaleko etxe hauek laster botako dituzte, eta berriak eraiki.

### NORANZKO ALDAKETAK

Lan horiek guztiak herritarrek jasaten ari diren ondorioek eragin dituzte: "Kexa ugari jasotzen ditugu. Lanok eta, ondorioz, noranzko aldaketek traba egiten diote herritarrari, baina ez dago beste modurik", gehitu du Ruak.

San Juan kalean hasi eta plaza-raino dagoen etxe ilara botako dute aurki, eta berriak eraiki. "Ekimen pribatuko eta kooperatiba baten ekimena dira hor egin-

go diren 43 etxebizitzak. Hori guztia bota eta eraiki bitartean, egungo egoeran bizi beharko gara. Baina, batetik, etxebizitza gehiago izango dira herrian, eta, bes-

tetik, erdialdeko kalea zabaldu egingo da. Herriak asko irabaziko du", dio Ruak.

Lan asko egingo dituzte, eta aurrerago azalduko ditugu denak.

*"Lanok eta, ondorioz, noranzko aldaketek traba egiten diote herritarrari"*

*"Batetik, etxebizitza gehiago izango dira herrian, eta, bestetik, erdialdea zabaldu egingo da"*

*"Herritarren kexa ugari jasotzen ditugu, baina egoera honekin luzaroan jarraituko dugu"*

## ATREBENTZIAEZPADA/ Lan ugari egiten ari dira herrian. Trabarik egiten dizu?



**IZASKUN OTAÑO**  
langilea

Nik ulertzen dut egoera. Leku batean edo beste batean bizi, traba gutxiago edo gehiago egiten dute lanok, baina herria bizirik dagoen seinale ere bada, ezta? Hobetzeko izango da!



**JULIAN GARASA**  
langilea

Gogaikarria da, eta autobusa hartzen dutenendako, are gogaikarriagoa. Kamioi gidariak ere gorriak ikusten ari dira. Herriaren onerako izango delakoan nago.



**AGURTZANE ORBEGOZO**  
langilea

Ez. Onerako da, baina jende askok ez du ezer errespetatzen. Askok dira aurkako norabidean abiada handian kaleak zeharkatzen dituztenak orain. Ez dago eskubiderik!



**IGOR EZPELETA**  
ikaslea

Jendea, hau edo bestea egin, beti kexatzen da. Lehen ez zegoen ezer; orain mugimendu handia dago, eta, trabak sortzen badira ere, herriarendakoa den seinale da hori.



**LARRAITZ ESNAL**  
ikaslea

Ez dut automobilik eta ez dut eragina zuzenean jasaten, baina luze joaten badira lanok jendea nekatu egingo da, ze batek baino gehiagok esaten du gehiegizkoa dela egoera hau.

### LABUR

Herriko emakume batek istripua izan zuen eguaztenean

Eskoriatza eta Gatzaga arteko errepidean, goizeko zortzi eta erdiak inguruan bi autok parez pare jo zuten eguaztenean.

Ertzaintzaren arabera, Seat Ibiza batek eta Nissan Terrano batek elkar jo zuten. Istripuaren arrazoiak aztertzeke, bidearen egoera nahiko txarra zela adierazi zigten Ertzaintzaren prentsa bulegotik. Eskoriatzako 42 urteko M.K.M emakumezkoa zauritu egin zen. Bidea bi orduz egon zen moztuta.



## TELEFONOJAKINGARRIAK

<b>ESKORIATZA</b>	
Udaletxea.....	943 71 44 07
Udal bulegoak.....	943 71 45 32
Udaltzaingoa.....	943 71 44 07
Euskaltegia.....	943 79 21 68
Kultura etxea.....	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea.....	943 71 31 36
Kirol etxea.....	943 71 53 28
Liburutegia.....	943 71 31 35
Luis Eceiza.....	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola.....	943 71 44 86
Almen.....	943 71 49 07
Museo Eskola.....	943 71 54 53
Axtroki.....	943 71 40 77
HUHEZI.....	943 71 41 57
Osakidetza.....	943 71 44 52
Telesko.....	943 71 49 17
Taxiak.....	943 71 40 59

<b>BESTELAKOAK</b>	
Eskualde ospitalea (Arrasate).....	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara).....	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate).....	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati).....	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga).....	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz).....	945 23 20 30
PESA (Arrasate).....	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate).....	943 77 10 43
SOS Deiak.....	112

## OHARRAK

**EMAKUMEAREN EGUNA**

Larunbatean afaria egingo dute Gure Ametsan. 14an, 19:00etan, Chile eta Mexikoko hiru emakumek "Beste herri batzuetako emakumeen esperientziak" hitzaldia emango dute Kultur Etxean.

**GURASOENTZAKO HITZALDIA**

Seme alaben aurrean euskararekiko zein jarrera izan behar duten gurasoek gaia jorratuko du Josune Alberdi Eibarko Berritze Guneko euskara teknikariak ostegunean, Almen ikastolan, 18:30ean. Guraso euskaldunei eskainitako hitzaldia izango da.

**AXTROKIRENAGENDA****BAI EUSKARAREN ITSULAPIKOAK**

Moneta berriarekin Eskoriatzan ere, Euskal Herri osoan bezala, azkeneko pezetak botatzeko aukera izan da. Astean, itsulapikoak jaso ditu Axtrokik.

## FOTONOTIZIA

**Herrien Europa Mintegia HUHEZIn**

Herrien Europa Fundazioak, Ihardun Multimediak eta HUEZIK bost urterako hitzarmena sinatu dute. Hitzarmenaren arabera Eskoriatzako fakultateak Herrien Europa Mintegia sortuko du. Helburua, Europako herrien arteko elkar ezagutza areagotzea. Europako beste herri batzuk aztertzerakoan, ildo nagusi bi ikertuko dituzte, arduradunen esanetan: hizkuntza eta hezkuntza. Ikerlanaren emaitza material pedagogiko-didaktikoan jasoko da, gero eskoletan lantzeko./A.G.

**HURRETIK/ Marilu Arando · Amuska Emakume Taldeko presidentea**

*“Egiten ditugun jardueretan edozein herritarrek har dezake parte, talde irekia gara-eta!”*

**M**arilu Arando eskoriatzarra da eta azkenengo juntan aukeratu zuten Amuska Emakume Taldeko presidentea.

**Noiz eta zergatik sortu zen Amuska?**

Duela 12 urte sortu zen. Etxeko-andre talde bat elkartu zen garai hartan. Herrian ez zegoen gauza askorik haiendako; eta, hala, zituzten beharrei erantzuteko asmoz, batu egin ziren. Taldea osatu eta ekintzak antolatzen hasi ziren.

**Asko hazi da taldea?**

Hasieran 25 emakume batu ziren. Egun, 180 bazkide gara. **Zein da zuen helburua?** Ditugun kezken eta beharren gainean berba egiteko eta


elkartzeko aukera izatea emakumeok.

**Hasieratik hona, izan dituzuen asmoak betez joan dira?**

Bai, asmoak eta helburuak osatuz joan gara. Kultura jarduera, ikastaro eta berbaldi ugari egiten ditugu. Ari gara! **Zer falta zaio Amuskari?** Ideia berriak ekarriko dituzten emakume gazteak.

**Geroago eta gaitzagoa da emakumea eta langilea izatea?**

Ez litzateke izan beharko, batik bat etxeko ardurak ondo banatuta egongo balira, baina etxe askotako errealitatea ez da hori. Etorkizunerako daukagun erronka handienetakoa da hori. **Baina emakumearen egoerak hobera egin duela uste duzu?** Bai, hori ukazina da. Aurrera-



pauso handiak egin dira. Dena dela, kanpotik ikusten dena da nabarmenki aldatu dena, baina, lehen esan bezala, etxe barruan badago oraindik zer egin. **Gizonezkoek ez dute Gizonen Eguna. Zeren adierazle da hori?**

Urteko beste guztiak gizonenak direla adierazten du horrek. Ez, benetan, bizi dugun desberdintasunaren seinale da hori.

**Zer ematen dio Amuskak Eskoriatzari?**

Jarduera ugari antolatzen ditugu: ikastaroak, bidaiak, kale antzerkia, zinema foruma... Herriko jaiak antolatzen ere hartzen dugu parte. Egiten ditugun jarduera guztietan edozeinek har dezake parte, talde irekia gara-eta!

ESTETIKA ESPEZIALIZATUTAKO ZENTRUA

**EDURNE**

Aranburuzabala, 42  
Tel.: 943 71 51 54  
ESKORIATZA

**AZKOAGA**  
ESTANKOA

Zure  
Zerbitzura

LENIZ, C.B. KONPONKETAK

**LENIZ**  
ESKORIATZA

TXAPA, MARGOA  
eta MEKANIKA

Aingeru Ibiltokia, z/g. • Tfnoa.: 943 71 50 61




# Debagoieneko Landa Garapenerako Programa aurkeztu zen Leintz Gatzagan

AINTZANE GARDOKI

Debagoieneko Mendi Nekazaritza Elkartek eta Mendikoik, programa hori lantzeko, eskualdeko eragile ekonomiko, sozial eta politikoen lankidetzaz bultzatu gura du. Baserritarren eta baserriaren beharrak aztertuko ditu Landa Garapenerako Programak.

Gatzagan proiektuaren aurkezpenean izan ziren kideen ustetan, Debagoieneko baserriek eta baserritarrek bizi duten egoera ez da batere ona. Hantxe izan ziren, besteak beste, Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurumen diputatu Jon Mikel Murua, Eusko Jaurlaritzako Landa Garapenerako zuzendari Ibon Mandaluniz, Mendikoiko lanaren arduradun Iñigo Lasuen eta Itziar Agirre eta Gatzagako alkate Joxerra Agirreurreta.



Joan den astean aurkeztu zen Landa Garapenerako Programa Gatzagan.

## MENDI NEKAZARI ZONALDEA

Horrela izendatu zuten Debagoiena 1986an. Europatik dirulaguntzak bideratzen ziren helburu batzuk betetzeko asmoz. Baserritarrei gutxienezko irabaziak bermatzea, jarduera osagarriak bultzatzea eta zerbitzu sozialak inguratzea izan dira, besteak beste, asmo horietako batzuk.

Inbertsio handienak azpiegiturretan egin dira, baina arduranen arabera hori ez da nahikoa baserri ingurunea eta baserriko jardura indartzeko: "Ibañeko jardura nagusia industria da, eta

nekazaritza atzean gelditu da, errentagarritasun ekonomikoa ez delako bestearen parekoa. Baina nekazaritza ezin da neurtu gaur egungo parametro ekonomikoekin", azaldu ziren Debagoieneko Mendi Nekazaritza Elkarteko kide Mari Carmen Iturbek. Haren ustez, denok erabili eta disfrutatzen dugun espazioa da baserria, eta gaineratu zuen ingurua zaintzea denon ardura

izan behar dela, ez gutxi batzuen. Iturbek Gatzagan egin zuen sarreran argi utzi zuen ibarrak dituen indize ekonomiko onak direla eta, Landa Garapenerako laguntzetatik kanpo gelditzen ari dela ibarra. Izan ere, gaur egun laguntza horiek jasotzeko indizeak aldatu egin dira, eta esan zuen badirela premia handiagotan dauden lurraldeak. "Hemen, nekazaritza eta baserri ingurunea

dago krisian, dagokiona eman ez diogulako. Denon ardura da horri erantzuna ematea", esan ziren Iturbek. "Orain arte moldatu gara oinarrizko beharrei erantzuteko, baina ez da nahikoa, eta baserri ingurunea berpizteko jarduerak plana egin da".

Programa Mendikoiren gidaritzapean egingo da. Aurkezpenean esku hartu zuten kideen esanetan, plana lantzeko ezin

bestekoa da eskualdeko eragile ekonomiko, sozial eta politikoen lankidetzaz bultzatzea. Plan horretan, nekazaritzarena ez ezik, ingurumen, iurralde antolamendu, osasun, kultura eta beste sektore batzuen gogoeta jaso nahi da. Betiere, nekazaritzaren ikuspegitik, baserri inguruneari lotuta.

Debagoieneko baserritar ugari batu zen Gatzagako udaletxean plana ezagutzeko.

aroztegia  
**Leintz**

Aingerugardako ibilbidea  
Tel.: 943 71 49 36  
ESKORIATZA (Gipuzkoa)

- Sukalde altzariak egiten ditugu
- Armairu enpotratuak
- Neurri bereziak

SAION DE BELLETA  
OSASUNA ETA EDERGINTZA  
**DORLETA**  
Aranburuzabala, 22 behea  
ESKORIATZA  
Tfnoa.: 943 71 51 20

**TOKI  
ALAI**

**TABERNA**

**Karajiloetan  
espezializatua**

Tel.: 943 71 47 29  
ESKORIATZA

**FAGOR**



**ELEKTRATRESNA  
TXIKIKO  
NEGOZIOA**

Aingerugarda ibilbidea, z/g  
Tel.: 943 039 100 • 943 71 54 52 (SAT)





Argazkian, Aldibiko gerente Jose Maria Barrutiabengoa, Agustin Zaballa irabazlea eta Javier Zumelaga, Aldibiko zuzendari komertziala.

**Aldi bi**

ARRASATE • Zigarrola 1-1. pabiloia • 943 71 20 02

Aurkezpen ekitaldia martxoaren 1ean izan zen, eta Nissan Primera ikustera joan zirenen artean Panasonic GS1 bideokamera digitala zozketatu zuten. **Agustin Zaballa Aspuru** suertatu zen irabazle.

## NISSAN PRIMERA berria Aldibin

Primera berria da Nissan-eko espiritu berritzailearen abiapuntua. Diseinu aurrerakoiena eta teknologia berritzailea, gidariaren pertsonalitatea islatzeko gai den autoaren zerbitzura.

### Erosotasuna:

Kontsola nagusi modernoa N-FORM sistema eksklusiboarekin. Aginte-tresnen funtzio berberak kontrolatzeko mugimendu gutxiago, %50 gutxiago.

· Audioa · Bidaia-ordenagailua · Atzeko ikuspegiko kamera · Satellite bidezko DVD nabigatzailea · Euri sentsore-dun haizetako-garbigailua · Aire-girogailua...

### Segurtasuna:

Primera berria bere egonkortasunagatik eta fidagarritasunagatik nabarmentzen da. Gainera, segurtasun pasiboko ekipamendu osoa dakar.

· Egonkortasuneko Programa Elektronikoa (ESP) · Autoen arteko distantzia neurtzeko kontrol inteligentea (ICC) · Gurpilak ez blokeatzeko lau kanaleko sistema (ABS), balaztatzea banatzeko sistema elektronikoa (EBD) eta Nissan-eko balaztatze asistentzia (NBA) · Aurreko, alboko eta gortinako aire-poltsak · Buru-euskarri aktiboak · Estructura indartuak · Telefono-sistema integratua.

### Prestazioak:


Abangoardiako teknologia gasolinazko motorretan -NCVCS sarrerako sistema eksklusiboarekin- eta injekzio zuzeneko eta Common Rail-eko Turbo Diesel 2.2 autoetan.

Irakurri besterik ez duzu egingo, ala probatu egingo duzu?



PRIMERA. Inteligentzia forma berria.





ILEAPAINDEGI

ESTETIKA

SOLARIUMA

LORAMENDI, 10

TEL: 943 77 01 26

20550 ARETXABAETA



Udaberrian, izan berri